Astigarragako Udala
Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

| | |
|---|---|
| **Esp. zk. / Nº expte.:** | 2019IUER0008 |
| **Espedientea / Expediente:** | 2019-2013 legealdia |
| **Azalpena / Concepto:** | TOKIKO GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO LOCAL. |

**774/2019 DEKRETUA, ekainaren 26koa, Tokiko Gobernu Batzarra eratzea eta alkatearen funtziok delegatzeari buruzkoa.**

Ikusirik Toki Antolamenduaren 7/1985 Legearen 21 artikuluan xedatutakoa jarraiki, 5001 biztanle baino gehiago duten udalerrientzat derrigorrezkoa dela Tokiko Gobernu batzarra eratzea.

Kontuan harturik aipatu lege xedapenaren arabera, Tokiko gobernu batzarra, alkatea eta zinegotziez osatuko dela, eta azken hauek ezin dutela osoko bilkurako herena baino gehiago izan.

Kontuan harturik 7/1985 Legearen 23. artikuluaren eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 46 artikuluaren arabera, alkatearen eskumena dela tokiko gobernu batzarraren kideak izendatzea, gero Osoko bilkurari horren berri emanaz.

Kontuan harturik 7/1985 Legearen 21. artikuluaren eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 41.3 artikuluaren arabera, alkateak bere eskumenak delegatu ditzakeela, besteak beste, tokiko gobernu batzordean.

Aipatu guztiagatik,

**EBAZTEN DUT**

**Lehena.**- Tokiko Gobernu Batzarreko kide hauek izendatzea:

- Lehendakaria: Xabier Urdangarin
- Bokalak:
  Esti Neira
  Andoni Gartzia
  Nerea Zusberro
  Mikel Durán

**DECRETO 774/2019, de 26 de junio sobre la creación Junta de Gobierno Local y delegación de funciones del alcalde.**

Resultando que de acuerdo con el artículo 20 de la Ley 7/1985 de Régimen Local es preceptiva la constitución de la Junta de Gobierno local para los municipios de más de de más de 5001 habitantes.

Considerando que en virtud del artículo 23 de la mencionada disposición legal, la Junta de Gobierno Local se integra por el Alcalde y un número de Concejales no superior al tercio del número legal de los mismos.

Considerando que en virtud del artículo 23 de la Ley 7/1985 y del artículo 46 del Real Decreto 2568/1986, le corresponde al alcalde nombrar a los miembros de la comisión de gobierno, dando cuenta al Pleno

Considerando que de acuerdo con el artículo 21 de la Ley 7/1985 y del artículo 41.3 del Real Decreto 2568/1986, el alcalde puede delegar sus atribuciones, entre otros, en la comisión de gobierno.

Por otro lo expuesto

**RESUELVO**

**Primero.**- Nombrar miembros de la Junta de Gobierno Local a los siguentes concejales:

- Presidente: Xabier Urdangarin
- Vocales:
  Esti Neira
  Andoni Gartzia
  Nerea Zusberro
  Mikel Durán

**Bigarrena.**- Tokiko Gobernu Batzordean alkatearen ondorengo funtzioak eskuordetzea:

**Segundo.**- Delegar las siguientes funciones del alcalde en la Junta de Gobierno Local:

**1.**- Obren, obra-emakiden, zerbitzu-emakiden, horniduren eta zerbitzuen kontratazioa, baita kontratu mistoen eta administrazio-kontratu bereziena ere, beti ere aurreikusitako balioa bada 62.000 euro baino handiagoa eta aurrekontuaren baliabide arrunten %10a baino txikiagoa, eta ez dauka zer ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio espediente batekin.

**1.**- La contratación de obras, concesión de obras, concesión de servicios, suministros, y servicios, así como de contratos mixtos y contratos administrativos especiales, cuyo valor estimado sea superior a 62.000 euros e inferior al 10% de los recursos ordinarios del presupuesto, salvo los expedientes relacionados con la central de contratación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**2.**- Obra- eta zerbitzu-proiektuak onartzea, horiek kontratatzeko edo emateko eskumena badu.

**2.**- Aprobar los Proyectos de obras y servicios cuando sea competente para su contratación o concesión.

**3.**- kontratu pribatuak egitea, bai eta toki-entitateen ondasunen gaineko emakidak adjudikatzea eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea ere, baldin eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (100.1 artikuluan zehaztutakoren arabera kalkulatua) bada 62.000 euro baino handiagoa eta aurrekontuaren baliabide arrunten %10a baino txikiagoa; baita ondarea besterentzea ere, balioa denean 62.000 euro baino handiagoa eta aurrekontuaren baliabide arrunten %10a baino txikiagoa.

**3.**- Celebrar contratos privados, así como la adjudicación de concesiones sobre los bienes de las mismas y la adquisición de bienes inmuebles y derechos sujetos a la legislación patrimonial; cuando el presupuesto base de licitación (*en los términos definidos en el artículo 100.1 de la LCSP*) sea superior a 62.000 euros e inferior al 10% de los recursos ordinarios del presupuesto; así como la enajenación del patrimonio, cuando su valor sea superior a 62.000 euros e inferior al 10% de los recursos ordinarios del presupuesto

**4.**- 62.000 € baino handiagoko eta aurrekontuaren baliabide arrunten %10a baino txikiagoko kontraprestazioa ekonomikoa duten hitzarmenak.

**4.**- Convenios que conlleven una contraprestación económica superior a 62.000 euros e inferior al 10% de los recursos ordinarios del presupuesto.

**5.**- Planeamendu orokorraren garapenerako planeamendu tresnak onartzea, ez badaude udalbatzari espresuki esleituak, bai eta hirigintza kudeaketako tresnak, bere eskumenen arabera dagozkion hirigintza hitzarmenak barne, eta hirigintza egitasmoak.

**5.**- La aprobación de los instrumentos de planeamiento de desarrollo del planeamiento general no expresamente atribuidas al, Pleno, así como la de los instrumentos de gestión urbanística, incluidos los convenios urbanísticos de su competencia y de los Proyectos de urbanización.

**6.**- Eraikin berrien obra nagusiaren hirigintza-baimenak ematea.

**6.**- La concesión de licencias de obras mayores correspondientes a obras de nueva planta.

**7.-** Eraikinak handitzeko obra-baimenak ematea, beti ere baldintza hauek betetzen badira:

- Handitze lanak egungo behe solairuko azaleraren okupazioaren %25a edo gehiago suposatzen badute.
- Solairuarte bat bakarrik eraikitzeko obra ez izatea.
- Igogailu bat jartzeko obra ez izatea, ez bada jabari publikoko ondasun baten erabilera dakarrela.

**7.-** Concesión de licencia de obra para ampliación de edificios, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

- Que la ampliación conlleve un incremento de la ocupación actual en planta baja del 25% o más.
- Que no se trate únicamente de la construcción de una entreplanta.
- Que no se trate de una obra para la instalación de un ascensor, salvo que conlleve la utilización de un bien de dominio público.

**8.-** Aurri-deklarazioak egitea, berehalako aurri-deklarazioak izan ezik.

**8.-** Declaración de ruina, excepto declaración de ruina inminente.

**9.-** Hirigintzako zehapen espedienteen ebazpenak, horiek larri edo oso larriak direnean.

**9.** Las resoluciones de expedientes sancionadores urbanísticos calificados como infracción grave o muy grave.

**10.-** Udal ordenantzekiko arau hausteak zigortzea 600 eurotik aurrera, non eta ahalmen hori beste organo batzuei egotzirik ez den.

**10.-** Sancionar las faltas por infracción de las Ordenanzas municipales a partir de 600 euros, salvo en los casos en que tal facultad esté atribuida a otros órganos.

**11.-** 62.000 € baino handiagoko eta aurrekontuaren baliabide arrunten %10a baino txikiagoko gastuak baimentzea eta baliatzea.

**11-** Autorizar y disponer gastos, de importe superior a 62.000 euros e inferior al 10% de los recursos ordinarios del presupuesto.

**12.-** Langileak hautatzeko probetarako oinarriak onartzea, bai eta lanpostuen lehiaketetarakoak ere, eta finkoak eta aldizka-aldizkakoak ez diren ordainsariak banatzea.

**12.-** Aprobar las bases de las pruebas para la selección del personal y para los concursos de puestos de trabajo y distribuir las retribuciones complementarias que no sen fijas y periódicas.

**13.-** Udal administrazioko funtzionarioei diziplina espedienteak irekitzea.

**13.-** Incoación de expedientes disciplinarios a los funcionarios de la Administración Local.

**14.-** Ondare erantzukizun espedienteak ebaztea, 6.000 eurotik gorakoak direnean.

**14.-** Resolución de expedientes de responsabilidad patrimonial de importe superior a 6.000 euros.

**15.-** Diru-laguntzen deialdien oinarriak onartzea eta deialdi-publikoa egitea. Eta baita ere 3.000 eurotik gorako diru-laguntzak ematea.

**15.-** Aprobar las bases de las convocatorias de las subvenciones y hacer la convocatoria pública; así como la concesión de subvenciones de importe superior a 3.000 euros.

**16.-** Planak onartzea: berdintasuna, euskara, mugikortasuna, irisgarritasuna...

**16.-** Aprobar los planes: igualdad, euskara, movilidad, accesibilidad...

**Hirugarrena.-** Ebazpen honen berri udal osoko bilkurari ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Tercero.-** Dar cuenta de este decreto al pleno y publicarlo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Astigarragan, 2019ko ekainaren 26an.

Xabier Urdangarin Lasa
Alkatea.